



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO MARTXOAK 29AN
GOIZEKO 09:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2022/03/08.

Batzarkideek 2022ko martxoaren 8ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ENPLEGUA SUSTATU ETA AUZOLAN BERRI IV PROGRAMAN DAUDEN LANGABEAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: HE.03/2022-0013

Ikusirik

Beterri-Buruntza eskualdeko udalek (Astigarraga, Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbil) zenbait baliabide soziolaboral jarri dituzte martxan azken urteotan, gizarte-enpleguko proiektuaren barruan Gizarte egoera ahulean eta/edo baztertuta dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak sustatzeko. Horien artean, Auzolan Berri prestakuntza eta laneratzeko programa nabarmendu behar da. Enplegu eta prestakuntzako programa bat da, eta gizarteratzeko ibilbide bat marrazten du, pertsonen laguntzen diena programak irauten duen prozesu osoan, prestakuntza-baliabideak, arreta pertsonalizatua eta lan-esperientzia eskainiz aurrez prestakuntza jaso duten jarduera-sektorean.

Aurtengoan, Auzolan berri IV, "Eraikuntzako estaldura arin eta teknikoen oinarritzko eragiketak" 1. mailako profesionaltasun ziurtagiriaren inguruan prestatu da eta Usurbilgo Udalak antolatu du, Beterri-Buruntzako 5 udalen ordezkari gisa.

Usurbilgo Udalak, aipaturiko Auzolan berri IVko prestakuntza programa gainditu duten langabeak kontratatzekeo deialdia arautu eta dirulaguntzak prestatu ditu.

Oinarri hauen xedea Usurbilgo Udalaren kontratatzekeo diru-laguntzen deialdia arautzea da, egoitza soziala eta lantokia Gipuzkoan duten enpresentzat, Beterri Buruntza eskualdean Auzolan berri IV programa gainditu duten langabeak kontratatzekeo.

Era berean, kontrataziorako diru laguntza hauen bidez, hartzaile guztien kontratazio aukera



Usurbilgo Udala

berdintasuna sustatu nahi da. Bistan da lan merkatuko zenbait sektoretan gizatalde batzuen presentzia gutxitua dela. Eraikuntzaren sektorea, gizartearen begietara, oso sektore maskulinoa izan ohi da eta ondorioz, betidanik emakumearen presentzia urria izan da. Sektorean dagoen genero arrakala orekatzeko, emakumeen enpleguratzeara ahalbidetzea bilatzen da. Halaber, lan egiteko baimenik ezean, lanean hasteko aurrekontratu bat behar duten pertsonen egoera agerian jartzeko, lan ibilbideak garatzeko pizgarriak erantsi dira. Beraz, aipaturikoen enpleguratzeara sustatzeko kontratazio laguntzen ildo bat bereizi da.

Honela, Auzolan Berri IV. programan parte hartzen duten langabeak kontratatzeke bi kontratazio ildo bereizten dira: langabe orokorra, eta sektorean enpleguratuak izateko pizgarri bereziak behar dituzten langabeak. Azken hauek neurri positiboaren bidez, emakumeen presentzia indartzeko eta aurrekontratu behar duten pertsonen lan ibilbideak garatzeko bideratuak izango dira.

1.- Langabe orokorra: 3 hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora 3000€z lagunduko da.

2.- Sektorean enpleguratuak izateko pizgarri bereziak behar dituzten langabeak:

2.1.- Hiru hilabete edo gehiagoko kontratua lanaldi osora emakume denari egin ezker 4.500€z lagunduko da.

2.2- Lanerako aurrekontratu proposamen bat behar dutenei eginez gero, 4.500€ko laguntza jaso ahal izango da.

Aipaturiko kontratazio guztietarako, lan eta atzeritartasun arloan indarrean dagoen legeria hartuko da kontuan.

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da diru-laguntzen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 2022ko azaroaren 30ean amaituko da.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: 2022an Beterri-Buruntzako Auzolan berri IV programan dauden langabeak kontratatzeke dirulaguntzaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi erantzen zaizkiolarik.

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.8000.480.231.03.07 eta diru-laguntzarako 21.500,00 € ezartzen dira.



Usurbilgo Udala

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Eskerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2022ko azaroaren 30 arte.

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

3.- USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZEN GARBIKETA ZERBITZUAREN 2. LUZAPENA.

Esp. zk.: ID.05/2017-0544

IKUSIRIK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko uztailaren 17an Gureak Garbitasuna SLU enpresaren alde esleipena egin zuen.

2018ko abuztuaren 14an kontratua formalizatu zen. Prestazioa burutzeko epea bi urtekoa da eta kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango da, urtez urte, hortaz, gehienez ere lau urteko iraupena izango du.

2020ko abuztuaren 17an, 620/2020 dekreturen bidez, lehenengo luzapena onartu zen. Bigarren luzapenari dagokionean, arrazoi ezberdinak tarteko berau gauzatu gabe geratu zen.

Kirol saileko arduradunak kontratua luzatzearen aldeko txostena osatu zuen 2021ean bertan.

Hori horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalaren eta Gureak Garbitasuna S.L.U enpresak sinatutako Usurbilgo udalaren kirol instalakuntzen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren azken luzapena egitea 2022ko abuztuaren 13ra bitartean.

Bigarrena: Plegu administratiboetako 20. klausularen arabera kontratu honi ez dagokio prezio berrazterketarik.

Hirugarrena: 2022 urteko aurrekontuko 1.4300 227 340 00 01 2022 (2710) kontusailaren kargura 52.638,50 euroko gastua onartzea (AD 467-2022).

Laugarrena: Interesatuari, Kirol sailari eta kontuhartzaitzari erabaki hau jakinaraztea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.